



INTXAUR PILOTALEKUA LAISTER BERRITUTA

Estalki berria jarriko diote Zizurkil Goiko frontoiari eta itxi egingo dute, Madrildik jasotako diruarekin > 4

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Osteguna
2009-07-02

VIIURTEA 1.743.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Atzoko aurkezpenean, Jokin Azkue, Irene Larraza eta Isitxo Larrañaga (Molatu enpresako kidea). E. EZEIZA

GAU GIRO, ZINEMA ETA ERAKUSKETAK UDAKO ESKAINTZA

TOLOSA Udal ordezkariak datozen hilabeteetarako kultur ekitaldiak aurkeztu zituzten atzo; Aranburu eta Leidor zabalik izango dira >

'Articulo Nº 3' antzezlan bihar, tailerrekoen eskutik

TOLOSA 'Los peles' lanean oinarrituta dago emanaldia; 22:30ean izango da Leidorren >

Imanol Sorondok irabazi du Amodiozko Gutunen Lehiaketa

VILLABONA Ibartarrak lehen bi sariak jaso ditu; Etxeberria eta Iguaran ere, sarituak >



Atxiloketen berri emateko batzar informatiboa egin zuten herenegun. R. CALVO

«Agirrebarrena aita-semeak askatzea» exijituz

LIZARTZA Egunero elkarretaratzera deitu dute, 20:00etan plazan, «atxilotuak askatu arte» >

«Ikurrinari omenaldia egitera» deitu ditu herritarrak Bai Euskal Herriarik

IBARRA Jaietan balkoian ikurrina jartzeko deialdia egin dute eta ez dute «bandera arrotzik nahi» >



Belabieta kiroldegian deialdia egiteko bildu ziren hainbat herritar. HITZA

Kultur jarduerak kalera aterako dituzte uztailean

ERREDAKZIOA

Uztaileko kultur ekitaldien eta jardueren zerrenda murriztago da, urteko beste hilabeteekin alderatuz gero. Ohikoa denez, udako oporraldiaren ondorio izaten da hori. Hala ere, herriko kultur guznetako ekitaldiez gain, kultura kalera ateratzen dute uztailean zehar eta herri giroa bizitzeko ahalegin berezia egiten da, batik bat udako hiru hilabeteetan.

Musika kontzertuek, Gau Giroko egitarauak, Amarotz auzoko jaiak edota gazteentzat Uda Gaztean egingo dituzten ekitaldiak dira adibide argiena. Hauetaz gain, ohiko zinema saioak eta erakusketak izango dira.

Hona hemen zehaztuta uztailean zehar aukeran izango diren ekitaldiak:

Antzerkia

- **'Artículo n. 3'**. Bihar, Tolosako antzerki tailerraren emanaldia, Leidor aretoan, 22:30ean.
- **XI. Amarozko Antzerki Astea**. Hilaren 4ra arte, Amarotzen.

Musika

- **Arimaz**. Orkestraren kontzertua Santa Klara elizan, bihar, 20:00etan.
- **Tolosako Musika Banda**. Bihar, Amarotzen 20:00etan.
- **Gau Giro 09**. Uztailearen 4tik abuztuaren 29ra: dantza, musika eta zinema kalean.

Zinema

- **'Un cuento de Navidad'**. Gaur, zine-forum saioa, 19:30ean eta hilaren 4an, 22:30ean, Leidorren (jatorrizko bertsoan).
- **'Los mundos de Corraline'**. Hilaren 4an, 19:30ean eta hilaren 5ean, 17:00etan, Leidorren.
- **'The international'**. Hilaren 5ean, 19:30ean eta hilaren 6an (ikuslearen eguna), 20:30ean, Leidor aretoan.
- **'Man on wire'**. Hilaren 9an, zine-forum saioan, 19:30ean; hilaren 11n, 22:30ean (jatorrizko bertsoan).

■ **'Coco: de la rebeldía a la leyenda de Chanel'**. Hilaren 12an, 19:30ean eta hilaren 13an, 20:30ean, Leidorren.

■ **'Breve encuentro'**. Hilaren 16an, zine-forum saioan, 19:30ean eta hilaren 18an 22:30ean, Leidorren (jatorrizko bertsoan).

■ **'Millenium'**. Hilaren 19an 19:30ean eta hilaren 20an (ikuslearen eguna) 20:30ean, Leidorren.

■ **'Ice age 3'**. Hilaren 24an, 19:30ean; hilaren 25ean, 19:30ean eta hilaren 26an 17:00etan, Leidorren.

■ **'Vacaciones de Ferragosto'**. Hilaren 25ean, 22:30ean; hilaren 26an, 19:30ean eta hilaren 27an, 20:30ean (ikuslearen eguna), Leidorren.

■ **'UP'**. Filmaren estreinaldia izango da Leidor aretoan, uztailearen 30ean.

Erakusketak

- **Kultur tailerrekoen lanak**. Aranburu jauregian pintura, zeramika, eskulanak, patchwork eta ehoziariak eta argazkigintza tailerrekoen lanak ikusgai etzi arte.
- **'Hotsez hotz'**. Pelexen *Hotsez hotz* eskulturgintza erakusketa Aranburu jauregian, uztailearen 10etik abuztuaren 31ra arte.
- **'Kolpez kolpe'**. Karlos Irazuren *Kolpez kolpe* eskulturgintza-egurgintza erakusketa, uztailearen 10etik abuztuaren 31ra arte.

Besterik

- **Odol ateratzea**. Odol emaleen hileroko odol ateratzea uztailearen 20an izango da Kultur Etxean.
- **Uda Gaztea**. Uztaile guztian zehar Gazte Topaguneak antolatuta egitarau zabala Kultur Etxean eta txangoak.
- **Jaiak**. Uztailearen 3tik 5era Amaroz auzoko jaiak.
- **Udako liburategia**. Udako liburategia Usabal igerilekuan, astelehentik ostiralren 15:00etatik 19:00etara, irailaren 12ra arte.
- **Nazioarteko Gazte Auzolanderia**. Bedaion, uztailearen 1etik 14ra eta 16tik 29ra.

Festa gosea asetzeko, Amarotz auzoaren txanda

Jaiak » Bihar hasi eta igandera arte, musika, dantza, haurrentzat jokoak, lehiaketak,... izango dira auzoko jaietan.

ERREDAKZIOA

Sanjoanak eta sanpedroak igaro dira gure eskualdetik. Baina oraindik festa gosea asetu ez dutenek bihurtik aurrera Amarotz auzora gerturatzea baino ez dute, bertan ospatuko baitituzte jaiak. Igandera arte hiru egunetako festa eta parrranda giroa ziuraturik dago. Bihar arratsaldean, 16:00etan, txupinazoa botako dute, jaien iragarle.

Ondoren, haurrentzat jolasak, txokolatadak, buruhandiak,... izango dira. Iluntze aldera, 20:00etan, Tolosako Musika Bandaren kontzertua izango da entzungai. Gaualdean txosnagune inguruan mahaiaren bueltan elkartuko dira afaltzeko eta ordu txi-



laz ere erromeria ospatu zuten San Fermin egunaren bezperan. HITZA

kietarra arte luzatzeko aukera izango da Disko Top Festari esker, gauerditik aurrera.

Larunbatean, egun handia

Indarrrik geratzen bada, larunbata ekitaldiz beteriko eguna izango da eta era guztietakoak gainera. Bate-

rik, txirindularitza proba egingo dute eta bestetik musika eta dantza uzartuko dituzte. Halaber, fatxada eta balkoi loratuen lehiaketa errepikatuko dute, bai eta bakailao ajoarriero lehiaketa ere. Gauean, DJ Pixie eta DJ Bullek jarriko dute giroa.

» EGITARAUA

Uztailak 3, bihar

- **16:00**. Jaien hasiera txupinazoa-rekin.
- **16:00**. Haurrentzat jolasak Txoko Txikin.
- **16:30**. Buruhandien irteera eta ondoren jolasak.
- **18:30**. Sari banaketa eta ondoren txokolatada San Blas elkartearen parean.
- **19:00**. Beti Gazteak elkartearen txokolatada jubilatuentzat.
- **20:00**. Tolosako musika bandaren kontzertua.
- **20:30**. Kantu jira festa gunean, auzoko eta bisitari guztiei irekia.
- **21:30**. Auzoko afaria txosna inguruan, eta ondoren ikuskizuna.
- **00:00**. Disko Top festa.

Uztailak 4, etzi

- **08:00**. Garbiketa orokorra Txurkin txarra zaharra taldearen eskutik.
- **10:00**. Amarozko txirindulari proba: Patxi Rodríguez XII. memoria (kadete maila), Oriako txirindulari eskolak antolatuta.

- **10:00**. Diana Amarozko Konpon ezinak taldearekin.
- **10:30**. Fatxada eta balkoi loratuen lehiaketa.
- **10:30**. Puzgarriak eta jolasak. Aurretik eta ondoren, buruhandiak.
- **12:00**. Bakailao ajoarriero lehiaketa.
- **12:30**. Irurako dantzari txikiak.
- **14:30**. Ajoarriero lehiaketako sari banaketa; bazkaria partaideekin eta gonbidatuekin; ondoren Joseba Urbietak *Euskal kanta zaharrak*.
- **16:00**. Puzgarriak eta jolasak.
- **16:30**. VI. Mus Azkarra txapelketa Ekaitz tabernan.
- **17:30**. Amarozko haurren dantza ikuskizuna.
- **18:00**. Sebastolopoleko titirite-roak.
- **20:00**. Amarozko danborrada.
- **21:30**. Auzo afaria, DJ Pixie.
- **00:00**. Disko festa, DJ Bull.

Uztailak 5, igandea

- **08:00**. Garbiketa orokorra, Beti-koak taldearekin.

- **09:30**. Lurreko Andre Maria elizan meza Amarozko hildakoekin alde.
- **09:30**. Diana, Tolosako txistulariekin.
- **10:30**. Erromeria: San Blaseko ermitan elkartu hamaiketako egiteketa (barrikotea) eta auzoan barrena jaitsi kalejira.
- **11:30**. Amarozko artisau eta eskulanen erakusketa eta erakustaldia zuzenean festa gunean, Beti Gazteak elkarteak antolatuta (Ehozi-ianak, kakoratz-ianak, bainika, eskulanak,...)
- **12:00**. Toka Txapelketa Ekaitz tabernaren aurrean.
- **13:30**. Fatxada eta balkoi loratuen sari banaketa.
- **14:30**. Auzoko bazkaria Amarozko txarangarekin.
- **18:30**. Amarozko dantza taldea eta Amarozko dantzari txikien emanaldia. Ondoren, auzoko aurrakua.
- **20:00**. Afari merienda (sardina erreak, sagardoa, eta musika Zelaia anaiarekin.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

Laburrak

Pello Lizardira ekartzeko exijituko dute gaur

POLITIKA ● «Duela urtebetetik Pello Odriozolak aske egon beharko lukeela» salatzen elkarretaratzera deitu du Lizardi kultur elkarteak. Hilabetero bezala, Plaza Zaharretan izango da ekitaldia, 19:30ean. Pello Lizardira leloa duen pankarta erakutsiko dute bertan. Data berezi honetan, herritarrei bertara agertzeko deia luzatzen diete.

Pablo Louredo sukaldaria Zerkausian izango da etzi

ASIA ● Tolosa Gourmet ekimenean, Slow Food eta Tolosako Udala aurrera eramaten ari diren ekitaldiak jarraituz, Pablo Louredo sukaldaria Tolosan izango da etzi. Donostiako Branka jatetxearen sukaldere nagusiak Zerkausiko merkatuan erosiko ditu goizean goiz lehengaiak, eta ondoren, han bertan, zenbait plater sukaldatuko ditu. Jarraian, prestatutakoa bertaraten direnen artean banatuko.

Belateko ibiltokia, kamioi eta autobusentzat itxia

ASIA ● Ur hordirurako hodiaren, hau da, kolektorearen obrak direla-eta 2 aste hauetan trafikoa aldatzeko izango dira Belateko ibiltokian. Autoak bakarrik igaro ahal izango dira bertatik. Debekatuta izango dute autobus eta kamioiek errepide horretatik ibiltzea. Hori dela eta, Tolosa, Anoeta, Alkiza, Hernialde ibilbidea egiten duen Tolosaldeko autobusek Larra mendian 6an izango dute geltokia.

Gau Giroz gain, erakusketa eta zine emanaldiak izango dira uda honetan

Kultura ● Atzo aurkeztu zuten uda honetako kultur eskaintza; aurten estreinakoz Leidor eta Aranburu zabalik dira.

ENERITZ IRAOLA

Tolosarrak herrian bertan geratu eta kanpotarrak herrira gerturatzeko asmoz, musika, dantza eta antzerki osatutako egitarau oparoa antolatu du Udalak Gau Giroren baitan. Eguneko azken orduetako haize freskoak aprobetxatzeko asmoz ekitaldi hauek asko kanpoan izango dira.

Gau Giroko proposamenez gain, beste urte sasoiaren egoten din zinema eta erakusketa aukera udara ekarri dute. Estreinakoz Aranburu jauregia irekita egongo da eta Leidor zinemaren ohiko saioak izango dira. Berrikuntzen artean aurten Zinea Kalean saioetako bat San Esteban auzoan izango da.

Ekimen honetan Udalak laguntzaile izan du Molatu enpresa eta, musika emanaldiak antolatzeko garaian, baita hainbat taberna ere: Iratxo, K2, Iturri, Eguzki, Ikatz, Nalsh, Dickens, Share eta Bide Bide.

Gau Girori amaiera emateko Tolosako talde bat aukeratu dute, Desordutan, hain zuzen. Garai horretan beraie lehendabiziko diskoak prestatzen ariko dira eta kontzertuan zenbait kantu aurreratu ahal izango dituzte.



Atzo aurkeztu zuten udako egitaraua Larraza kultur teknikariak, Azkue zinegotziak eta Asensio Molatuko kideak. E. E.

» GAU GIRO 2009

Uztaila

■ **Kultur tailerretakoen antzerki saioa.** 'Articulo 3' lana aurkeztuko dute bihar 22:30ean, Leidor aretoan.

■ **Udaberri dantza taldea eta Dancantes de Gurrea.** Tolosarrak Huescakoekin batera izango dira etzi. 19:30etik aurrera kalejira egingo dute Alde Zaharretik barrena, eta 22:30ean dantza emanaldia eskainiko dute Plaza Berrian.

■ **The Billie Jeans taldea.** Uztailaren 10ean, Lopez Mendizabal pasealekuan izango da Gau Giroko lehendabiziko kontzertua. Hau 22:30ean hasiko da.

■ **Tolosako Musika Banda.** Uztailaren 17an, 22:30ean, emanaldia eskainiko dute Lopez Mendizabal pasealekuan.

■ **Naive taldea.** Uztailaren 24an hauek entzuteko aukera izango da Plaza Berrian. 22:30ean hasiko da kontzertua.

Abuztua

■ **Zinea Kalean.** Abuztuaren 7an Amarotz auzoan izango da saioa, 22:30ean, eta abuztuaren 21ean, ordu berean, San Estebanen.

■ **Lena Sinais taldea.** Jazz ermitimok nagusituko dira Bide Bide tabernaren kanpoaldean, abuztuaren 22an, 22:30etik aurrera.

■ **Desordutan taldea.** Tolosarrekin emango diote amaiera Gau Girori. Kontzertua abuztuaren 28an izango da, Plaza Berrian.

Emaitza onak Tolosako neskek

Txirindularitza » Proba eta txapelketa ugari jokatu dituzte ekainean; Dorleta Eskamendi eta Irene Usabiaga nabarmendu dira.

ERREDAKZIOA

Ekainean hainbat proba eta txapelketatan hartu dute parte Tolosa CF txirindulari taldeko neskek. Gustura daude eskualdekoak lortutako emaitzekin eta taldean egindako lana nabarmendu dute.

Lortutako emaitzen artean, aipagarrienetakoa dira Dorleta Eskamendi eta Irene Usabiagarenak. Lehenak Gipuzkoako eta Euskadiko CRI junior mailan garaipena lortu zuten. Hurrenez hurren, bata ekainaren 3an jokatu zen Aizarnazabal, eta bestea, 17an, Villatuertan. Bigarrenak berriz, ekainaren 27an, Zallan jokatuak Euskadiko pista Txapelketan parte hartutako lau probetan garaipena erdietsi

zuen. Kadeteen mailan lehiatu zen, ondorengo probetan: bakarkako abiaduran, 500 metroan, puntuaketa eta bakarkako jazarpenean.

Gipuzkoako CRI txapelketan, han izan zen ere lehiari Maite Murgia, honek ere podiumera igotzea lortu zuen, helmugara bigarren iritsiz.

Ekainaren 6an, San Sadurni de Anoián (Bartzelona, Herrialde Katalanak) Kataluniako txapelketa linean jokatu zen. Bertan ere, Tolosaldekoen artean emaitza onena Dorleta Eskamendik lortu zuen, junior mailan, bigarren geratu baitzen. Kadeteetan, oso ongi moldatu zen ere, Aitziber Azaldegi, eta helmugara bosgarren iristea lortu zuen. Elite mailan lehiatu zen Helena Molillo, eta hamaikagarren geratu zen hau. Berarekin batera atera zen errepidera Marta Barbero, eta hau, 23 urtez azpikoetako hirugarrena izan zen.

Lehen aipatutako Euskadiko

Txapelketa CRI n Maite Murgia seigarren geratu zen sailkapenean.

Espainiako probak

Espainiako kopa eta Txapelketa linean jokatu dira hilabete honetan. Lehendabizikoa Murtzian jokatu zen ekainaren 21ean, eta bigarrena Santanderren. Bietan ere, eskualdeko txirindulariak aritu ziren lehiari, Tolosa CF taldea ordezkatu.

Espainiako Kopan laugarren geratu zen Dorleta Eskamendi eta maila berean, hogeita bigarren lehiari Maite Murgia geratu zen. Elite mailan, bosgarren geratu zen Ana Usabiaga, eta hamaseigarren Lide Larrañaga. Kadeteen mailan ere hartu zuten parte zenbait txirindularik, eta bertan, bederatzigarren sailkatu zen Irene Usabiaga eta hamabigarren, Aitziber Azaldegi. Espainiako txapelketan linean, hamargarrena geratu zen eta pan eta bigarren berriz, 23 urtez azpikoetan.

Gaur, Voith-Gorostidiko etxebizitzaren zozketa

Hirigintza » Babes Ofizialeko 79 bizitzaren esleipenerako zozketa egingo da Leidorren, 12.00etatik aurrera.

ERREDAKZIOA

Voith-Gorostidi eremuko Babes Ofizialeko etxebizitzaren esleipenerako zozketa egingo da gaur. Leidor antzokian izango da hau, 12:00etan. Denera, 79 etxebizitza zozketatuko dira eta 572 eskatzailearen artean banatuko dira.

Esleipenerako oinarrietan jasotakoaren arabera, hiru multzotan banatu dira eskatzaileak eta etxebizitzak. Bost, mugikortasun urriko eskatzaileei zuzenduta daude, eta 12k izango dute hau eskuratze-ko aukera. Beste 55, 35 urtekin behar koentzat izango dira, eta 392 dira eskatzaileak. Azkenik, 19,

kupo orokorren zozketa izango dira, eta hauek eskuratze-ko, 168k dute aukera.

Zozketa honek berritasun bat izango du, izan ere onartutako eskatzaileei zenbakiak emateko garaian bizikidetzaren unitateak osatu dagoen kontutan hartuko dute. Hau da, eskatzaile tituluak zenbat izango diren eta bizikidetzaren unitateak zenbat kide osatzen duen aztertuko dute. Hori dela eta, nahiz eta zozketan 572 eskatzaile hartuko duten parte, bonboan 727 bola sartuko dituzte.

Dena den, gaur aterako den hautatu zerrenda ez da esleipendunena izango. Izan ere, zozketako irabazleen baldintza ekonomiko eta etxebizitza ez izatearenak betetzen diren ikusteko behin betiko azterketa egingo dute. Hau baieztatu ostean, baldintzak betetzen dituztenen artean beste zozketa bat egingo da.

'Kirolari Ateak Zabalik' ekimeneko zozketa egin du Udalak

Villabona » Mari Jose Aranguren zizurkildarra eta Ion Azpeitia eta Eider Duran billabonatarak dira sarituak.

ERREDAKZIOA

Kirolari Ateak Zabalik ekimenen parte hartu zutenen artean zozketa egin du Villabonako Udalak. Hiru sari banatuko dira: helduen mailan, 18 urte azpikoetan eta 11 urte azpikoetan. Helduen mailan, Mari Jose Aranguren zizurkildarra izan da saritua. Kirol materiala erosteko bono bat izango du, Udalak oparituta. Lehenengo ordezkoa Unai Iraola billabonatarra da eta bigarrenkoa Juanjo Villena billabonatarra.

18 urte azpikoetan Ion Azpeitiak jaso du saria, hau da, piraguismoarekin lotutako kirol ekintza Udalak oparituta. Lehenengo ordezkoa Maddalen Puyadena billabonatarra da eta bigarrena Sandra Mendez billabonatarra. 11 urte azpikoetan sariduna Eider Duran billabonatarra izan da eta Eizmendi dendak emandako kirol materiala jasoko du. Lehenengo ordezkoa Josu Hernandez billabonatarra da eta bigarrena Eneko Gomez billabonatarra.

Sariak jasotzeko epea hilaren 17an bukatuko da eta Olaederra kiroldegian dagoen Gazte eta Kirol bulegora joan beharko du, asteartean 16:30etik 18:30era eta beste egunetan 13:00etatik 15:00etara. Ordurako ez bada azaltzen sariduna lehenengo ordezkok jaso ahaliko du saria eta hau ez bada azaltzen orduan bigarren ordezkok jango du aukera hori.

Parte-hartzaile guztientzat, eta agortu arte, Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako txinalak (txankletak) banatuko dira. 37 zenbakitik 42 zenbakira artekoak daude.

Iragarki laburrak

ALOKAIRUAN

■ **Etxebizitza.** Iruran edo Anoetan etxebizitza txiki bat alokatu nahiko nuke. 943 21 25 64.

■ **Etxebizitza.** Ikaztegieta pisua alokairuan, altzariekin. 943 654 077, 628 698 807 edo 676 011 260.

LANA

■ **Bigi Garbitasunak.** Garbiketa orokorrak, obra bukaerako garbiketak, bulegoak, etxeak, moketak eta alfonbrak. Deitu inongo konpromisorik gabe: 638 944 604 (Gurutze) edo 695 708 271 (Belen).

Intxaur frontoia berritzen ari dira Madrildik jasotako diru laguntzarekin

Zizurkil » Estalki berria jarri, paretei eta frontisari hezetasun tratamendua eman eta itxi egingo dute Zizurkil Goiko frontoia.

IMANOL GARCIA

Madrildik udalerei emandako diru laguntzarekin, Zizurkilgo Udalak Intxaur frontoia eraberritzea erabaki du. Obraren aurrekontua 500.000 eurokoa da eta apirillean hasi ziren. Lau hilabete epean amaitzea espero dituzte lanak. Marian Lazkano alkateak zehaztu duenez, «frontoiari estalkia aldatuko zaio, paretei eta frontisari hezetasun tratamendua emango zaio. Berritasun handiena frontoi itxia izango dela da».

Abalos enpresak egin du proiektua eta Trati enpresa hari da lanak egiten. Diru laguntzen baldintzetako bat langabeturen bat kontratatzea da eta Trati enpresak langabetu bat hartu du.

Lazkanok azaldu duenez, beste pare bat proiektu bazeuden baina azkenean frontoia berritzearena aukeratu zuten. «Zizurkil Goian aparkaleku gehiago izatearena pentsatuta genuen, baina diru laguntza hauek jasotzeko denborarik ez zigun ematen proiektua gauzatzeko». Intxaur frontoia berritzearen eta ixtearen beharra aspaldidanik zegoela azaldu du al-



Intxaur frontoia estalkirik gabe dago egun. Aurki jarriko diote berria. I. GARCIA

kateak. «Diru kopuru handia behar zenez, faseka egitea pentsatzen genuen, baina diru laguntza hauek aprobetxatzea pentsatu dugu proiektua aurrera eramaterik».

Intxaur frontoia «asko erabiltzen dela» azaldu du Lazkanok: «Eskolako haurrek askotan erabil-

tzen dute jolas denboran. Herritarrek zein kanpokoek pilotarako ere erabiltzen dute eta beste hainbat ekintzetarako ere erabili da». Ezingo dena erabili abuztuko festetan izango da, Zizurkil Goian egiten direnak. «Festa Batzordeak badaki ezingo dugula erabili. Espero dezagun eguraldi ona egingo duela

garai horretan ez dugula faltan botako», azaldu du alkateak. «Orain zen obrak egiteko garaia, festen ondoren ez baitzuen denbora ematen lanak aurtan bukatzeko», gaineratu du. Egun frontoia estalkirik gabe dago. Dirudien obrarekin jarraitzeko behar diren materialen zain daude.

Imanol Sorondo ibartarrak irabazi du aurtengo Amodiozko Gutunen Lehiaketa

Villabona » Sorondok lehenengo bi sariak jaso ditu; Oihana Iguaran eta Iñaki Etxeberria izan dira beste saridunak.

ERREDAKZIOA

Udaleko Euskara Zerbitzuak urtero antolatzen duen Amodiozko Gutunen Lehiaketan aurtan 29 lan aurkeztu dira, orain arteko partehartze handiena izanik. Imanol Sorondo ibartarrak irabazi du lehiaketa *Amets* lanarekin. Bigarren saria ere autore berak eman du *Zure bila noa* lanarekin. Lehenengo aldian da parte-hartzaile berdinak lehenengo bi sariak eskuratu zituztenak.

Amasa-billabonatar onenaren saria Oihana Iguaranek jaso du, *Ilargiak eguzkiari* lanarekin eta gazte onenaren saria Iñaki Etxeberria ibartarrak jaso du *Lizarr*



Goian, ezkerretik hasita: Imanol Sorondo, Oihana Iguaran eta Iñaki Etxeberriaren anaia; azpian, Abaigar eta Arregi. N.U.

basarriko Iturbeta Elosatar Ascensio lanarekin. Maialen Abaigar Euskara eta Hezkuntza batzorde-

buruak eta Maite Arregi euskara teknikariak banatu zituzten sariak, ekitaldi xume eta arin batean. Juan

Kruz Igerabide eta Karlos Linazasoro idazleak izan dira epaimahai-kideak.

'Artículo Nº 3' aurkeztuko dute bihar antzerki tailerrekoek

Tolosa » Gerrari buruzko obra Antonio Martínez Ballesterosen 'Los Peleles' obran dago oinarrituta; Leidorren izango da.

Artículo Nº 3 lanaren bukaera esperpentikoa, absurdoa eta suntsitzaile bilakatzen da.

Antzezlan gerrari buruz

Gerrari buruzko fartsa honetan, noski gerrari buruz hitz egingo dute aktoreek, moral sozialaz ere ariko dira, gerrako soldaduen arteko harremanak ikusiko dira. «Modu honetan kontrajarriko dira nolabait esatearren, ofiziala eta absurdoa dena, norberaren sen onarekin».

Ironiarekin, absurdoarekin, sarkasmoarekin jorratzen dituzte gai horiek, kritikarekin. Modu hone-tan ikuslea pertsona guztien errealitate gogorarekin konpromisoa hartu behar dela ikusiarazi nahiko dute. «Bertako errealitatearen parte da gizakia eta horren barruan bizi da... Norberak atera ditzalabela bere ondorioak».

Los Peleles obraren egokitzapen honetan era sotilean bada ere, Miguel Hernandezen, Brecht, Sofokles eta Eduardo Galeanoren aipamenak ere entzun ahal izango dira, «inguratzeko gaituen mundu honetako muturaren aurrean jartzen dizkigun hainbat egoera salatuzko, oraingoan taularen gainean».

Pentsatzeko, hainbat galdera

Elena Aranbarri zuzendariak lan honen bidez «emakume gaiztoaren mito matxista horretan oinarrituta, kritika pertsonala eta soziala» egin nahi izan du, «berdintasunaren alde lan egiten dugunon emakumeei zuzenduta».

Eta «geure buruari gal detzen badiogu, emakumeak izanik eta gehiengo, berdintasunaren ordez garai batean gizonezkoek nahi zuten hori bilatuko bagenu?» Eta «boterea komunean dugun helburua izango balitz? Eta kopiatzen badugu eta guk ozen eta gogotsu



Leidor antzokian egin zuten atzo azken entsegu; aldamiok erabiliiko dituzte. ESTI EZBIZA

ERREDAKZIOA

Bihar, Leidor antzokian Tolosako Kultur Etxean antzerki tailerra ikasten duten ikasleek eskainitako antzezlan izango da. *Artículo Nº 3* egingo dute oraingoan. 22:30ean hasiko dira. Aurtun, iazkoarekin alderatuta zailtasun handiagoa duen obra taularatuko dute, ikasle guztiek interpretatzen dutelako obra bera alde batetik, eta bestetik, mugimendu eta xehetasun asko zaindu nahi izan dituztelako.

Giza eskubideen hirugarren artikulua hartu dute titulu gisa eta zera dio puntu honetara: «Gizaki orok bizitzarako eskubidea dauka, eta baita askatasunerako eta bere buruarekiko seguritateerako eskubidea ere».

Idea, duela 7-8 hilabetekoa

Joan den urteko abenduan hasi ziren pentsatzen zer egin hurrengo uztailean. Orduan 60 urte bete zituen giza eskubideen aitorenak Eleanor Roosevelt-ek Giza Eskubideen Batzordean parte hartu zuen eta bertan, Aitorpen Unibertsaleko 30 artikuluz idaztatzeaz arduratu zen.

Antonio Martínez Ballesterosen obra da *Los Peleles*. Autore honen antzerkian baloreak eta printzipioak beti eta sistematikoki zailantzan jartzen ditu. Izpiritua probokatzailera, ezarritako baloreen galtzea eta hauen benetako aurpegia ezagutzera eman. Antzerkia egiteko modu hau Franco generaren garaiko diktadurari aurka egiteko jaio zen.



Antzerkia iragarriko duen kartela. HITZA

kritikatzen genuen eskema bera errepikatzen badugu? Nolako etorkizuna izango dugu?» Duda-rik gabe, pentsatzen jartzeko galderak dira.

Musika zuzenean

Obra laburra da baina intentsoa, abiadura duena. «Inor ez izutzeko esan dudanarengatik, azken batean asko gozatu dugu eta barre asko

egin dugu prestatu bitartean. Ikusleak gozatu du obra ikusten», barre egiteko aukerak izango dira eta. Zuzenean Gargantas Desgarradas taldeak (Ibarra, Albiztur) joko du obraren garaian, hainbat momentutan. Aurki Cd-a kalean izango da.

Urtarrila inguruan hasi ziren obra prestatzen eta entseguetan eraldatzen joan da antzezlan,

» ANTZERKIAZ

- **Izenburua.** *Artículo Nº 3*, *Los Peleles* antzezlanean oinarrituta.
- **Eguna.** Bihar ostirala.
- **Lekua.** Leidor antzokian.
- **Ordua.** 22:30ean.
- **Pezioa.** 5 euro.
- **Zuzendaria.** Elena Aranbarri.
- **Aktoreak.** Ainara Arizmendi, Lurdes Elizegi, Susana García, Lore Iturrioz, Karmen Iza, Carmen Jimenez, Arantxa Lanzeta, Monse Los Arcos, Idoia Mauraza, Jeronimo Otegi, Bene Rodriguez eta Ne-reia Urbizu.
- **Kolaboratzaileak.** Marina Arsuaga, Aitor De Dios, Javier Esteban eta Idoia Martínez.
- **Musika.** Gargantas desgarradas.

bihar ikusi ahal izango den lan hori osatzera iritsi diren arte. Besteen artean, aldamiotan igota egon dira aktoreak, beldur batzuk gaintzeko lana egin ondoren.

Antzerkia euskaraz eta gaztele-raz dago egin da. Aktoreek beraiek euskaratu eta moldatu dute *Los Peleles* antzezlanak adierazi nahi zuena.

Ikusleak gozatzeko aukera izango du; gai serio bat jorratuko dute baina era arinean eta barregarrian gehienetan.

Laburak

Festetako herri kirol saioa prestatzeko bilera gaur

IKAZTEGIETA » Ikaztegieta festetan urtero bezala herri kirolak egin dituzte herritarrek. Bada, hau antolatzeko bilera izango da gaur Toki Alai tabernan 21:00etan. Bertan, taldeetako kideak biltzea nahi da eta denen artean herri kirol jaialdia prestatzen hasiko dira: zein probak egin, zein material erabili... Jaialdia bera abuztuaren 7an izango da, ostiralez.

Promoziozko bidaiera joateko aukera zabalik

ANOETA » Promoziozko bidaiera bat egingo dute Alkartasuna biltokio-ek bazkide zein ez bazkideentzat Laredora. Hilaren 14an aterako dira 07:30ean Laredora joateko eta bidaia 10 euro ordaindu behar da. Honekin, gosaria eta bazkaria ordainduko dira besteak beste. Opari bat ere jasoko dute eta interresuak biltokian bertan izena eman dezakete dagoeneko.

Sanferminetako erremontea

ERREDAKZIOA

Iruñeko San Fermin jaietan Altuna II.a eta Zeberio II.a ariko dira. Huarten izango dira partidak 16:00etan eta egunean lau partida izango dira hiru jardunalditan. 7an, 9an eta 11n (finalak).

Zeberio II-Iriarte, Urriza-Urrutia, Ezkurra-Badiola eta Altuna II-San Miguel dira lehian ariko direnak. Asteartean, beraz, Zeberio II-Iriarte eta Urriza-Urrutia ariko

dira finalerdian. Bigarren finalerdia hilaren 9an izango da Ezkurra-Badiola eta Altuna II-San Migue-len artean izanik.

Sandua Olioak desafioa astelehenean jokatu dute eta kasu honetan osatu dituzten bikoteak honakoak dira: Zeberio II-Lizaso Altuna II-Urrutiaren aurka. Partida hauekin batera Endika Urrutiak eta Gorka Urtausunek debutatu egingo dute.



Gorri, Altuna II.a eta Zeberio II.a. I.Z.

Zazpigarren urtez antolatu dute asteburu honetan izango den Langostino Moto Festa

Ibarra » Urteroko moto festa izango dute etzi eta igandean herrian; 300 motorzale inguru espero dituzte antolatzaileek.

REBEKA CALVO

Zazpigarrenez antolatu dute Langostino Moto Kultur Elkarteko Moto Festa Ibarra. Iaz oso eguraldi txarra egin zuen jaietan eta hala eta guztiz ere, 270 bat motorzale gerturatu ziren Ibarra, horregatik aurtengoa 300 motorzaleren topagune izatea ere espero dute antolatzaileek.

Etzi 14:00etan hasiko da jai
VII. Langostino Moto Festa etzi hasiko da, 14:00etan, baina motorzale asko bihartzik izango dira jada



300 bat motorzale espero dituzte asteburu honetan Ibarra. A. IMAZ

Ibarra, izan ere, Uzturne Ikastolaren inguruan kanpatzeko aukera izango dute eta Espainiatik gerturatu diren asko ostiralean bertan iristen dira Ibarraurantz.

Motorzaleek gosariak, bazkariak, afariak, kanpatzeko zein dutatzeko tokia izaten dute, besteak beste, 30 euroren truke, baina gainontzekoek, kontzertu eta motor jokoei kanpatzeko aukera ere izango dute.

Izan ere, ohiko moto jokoez gain, moto akrobazietan onenarikoa den Emilio Zamoraren ikuskizunarekin gozatu ahal izango da eta baita Hardware eta Lolas Club taldeen kontzertuak ere. Honekin batera, klasiko bihurtu den strepteasea ere ikusi ahal izango da etzi, Ibarra plaza.

Jai igandean amaituko dute moto irteera egin eta gero.

» EGITARAUA

Etzi, hilak 4

- **14:00.** Jaiaren hasiera.
- **17:30.** Jokoa motorrekin.
- **19:30.** Stuntman, moto akrobaziak Emilio Zamora Teamen eskutik.
- **21:00.** Afaria.
- **23:00.** Rock kontzertuak: Hardware eta Lolas Club.
- **02:00.** Streptease mistoa.
- **03:00.** Dj-a.

Igandea, hilak 5

- **09:00-10:00.** Gosaria.
- **10:30.** Moto bira: hamaiketako aingotze bidean.
- **13:00.** Ibarra itzuliko dira motorzaleak.
- **14:00.** Bazkaria eta jaiaren bukaera.

100 bat pertsonak eskatu dute Agirrebarrenatarren askatasuna

Lizartza » Atxilotuak askatu bitarte egunero 20:00etan herriko plazan elkarretaratzea egingo dutela esan dute.

ERREDAKZIOA

100 bat pertsona bildu ziren astearte iluntzean Lizartzan herriko Joseba eta Ibai Agirrebarrena aita-semeen espetxeratzea salatzen. Aita-semeak, beste bederatzita pertsonekin batera, Frantziako Poliziak atxilotu zituen larunbatean hasitako operazioaren barruan. Atxilotetako guztiak Lapurdi eta Nafarroa Beherean egin dituzte.

Lizartzan giza katea egin zuten lehenik herrian zehar eta ondoren, plazan, batzar informatiboa egin zuten. Bertan, Frantziako Poliziaren operazioan atxilotutako hamaika lagunetatik bakarrik utzi dutela aske argitu zuten eta baita,



Batzar informatiboa baino lehen giza katea egin zuten Lizartzan. R. CALVO

oraindik ere ez dutela aita-semeen atxilotetaren inguruko informazio gehiegirik ere.

Era berean, atxilotuak askatu bitarte egunero 20:00etan plazan elkarretaratzea egingo dutela esan

zuten. Gogoratu behar da Joseba eta Ibai Agirrebarrenekin batera Tolosako Jon Goio ere atxilotu duela poliziak. Zenbait berri-agentziek atxilotetako interes turistikoen kontra Ipar Euskal Herrian izandako erasoengatik direla zabaldu dute egun hauetan, baina Frantziako Poliziak oraindik ere ez du informazio zehatzik zabaldu honen inguruan.

Eskualdeko manifestazioa gaur, Tolosan

Lizartzako batzar informatiboetan Jon Goio tolosarrak «herri honen alde egindako lana» nabarmendu zuten baita.

Tolosan ere atxilotetako direla eta batzar informatiboa egin zuten atzo, Triangulon eta gaur eskualdeko manifestazioa izango da 19:30etan Triangulotik abiatuta.



Astearte arratsaldean hasi zuten kanpaldia eta ostiralera arte iraungo du. R. C.

Presoen aldeko kanpaldia egiten ari dira plazan

Ibarra » Ostiralean amaituko dute kanpaldia presoen lagun eta senideek plazatik 19:30ean abiatuko den manifestazioarekin.

REBEKA CALVO

Kanpaldia hasi zuten Ibarra kanpaldia familiarteko eta senideek pasa den astearte arratsaldean herriko plazan. Parte-hartzaileek esandakoaren arabera, kanpaldia «indarrak biltzeko» eta Udalarari «konpromiso zehatzak exijitzeko» baliatu nahi dute. Izan ere, Udaltzatik iaz erabaki zuen seniden diru laguntzak kentzea. «Presoen eskubideen alde azaltzen badira, beraien jardueratik norabide horretan joan beharko luke. Eta gutxienez, iazko uztailera arte Ibarra Udaltzeari egin zuten bezala, presoen seni-

deei diru laguntzak eman beharko lizkieke euren bidaietarako. Are gehiago, Maite Aranalde Renesko espetxean (Bretainia) eta Goar Jimenez Leongo espetxean daude, azaldu dute. Hori horretarako, «urrats praktikoa» eskatzen dizkiete Udalarari.

Ibarra alkateak, Txelo Romeok, bere aldetik, kanpaldia ez duela ulertzen esan dio HITZARI: «Ez zait zuzena iruditzen. Gaur goizean atzo-udaltxera iristerakoan ez nekien bertan zeuden kanpindandak zer ziren. Ez digute ezer esan. Gaizki iruditzen zait eta errespetu falta bat da gainera, herriko plaza horrela okupatzea, jende guztiak berdina egingo balu...». Romeok goizean kanpin-dendetara gerturatu eta bertan zertan ari ziren galdetu zuela ere esan du eta «horregatik dakit astearteko plenoan ondotik erabaki dutela kanpaldia egitea».



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Ibarrako Bai Euskal Herriarik hainbat herritar elkartu zituen herenegun Belabieta kiroldegian ikurrinaren alde. HITZA

Jaietan ikurrina balkoian jartzeko eta omenaldira agertzeko eskatu dute

Ibarra » Belabieta kiroldegian bildutako ibartarrek udaletxeko balkoian ez dute bandera «arrotzik» nahi.

ASIER IMAZ

Bai Euskal Herriari herri ekimenak hainbat ibartar bildu zituen herenegun herriko kiroldegian. Kezka bat eta bi eskaera plazaratu zituzten bertan.

Herritarrei eta alkateari

Belabieta kiroldegian bildutako ibartarrek bi eskakizun egin zituzten. Lehena, herriko jaien inguruan: «Ibarrako jaietan herritar guztiei ikurrina balkoian jartzeko eskaera egiten diegu. Zuk, guk eta guztiok keinu txiki hau eginda aldarrikapen handi bat egiten dugu».

Euskal Herriarekiko maitasuna eta bere eskubideen defentsa. Aldarrikapen honekin bat eginez, herriko festetan ikurrinari egingo zaion omenaldira etortzeko deialdia zabaltzen diegu ibartar guztiei».

«Ikurrina trapu batean bilakatuko da herriaren askatasun haizeak eragiten ez badu»

Bigarren eskakizuna Udalarari eta alkateari egin zioten: «Ibarrako Udalarari eta bertako Alkateari bereziki, Euskal Herriaren aurkako espainiar agindua iristen denean ez betetzeko deia luzatzen diegu; espainiar banderarik ez dugu nahi Udaleko balkoian, Ibarrako gehiago handi baten sentimenduak ordezkatzeko ez dituelako».

«Atzerriko banderarik ez»

Ibarran bildutako herritarrek errena ikurrina zela aldarrikatu zuten. Espainiako bandera «inposaketaren» ikurra zela gaineratu zuten: «Ikurrinak Euskal Herri osoa eta ibartarron gehiengo batzen dituen bitartean, espainiar banderak inposaketa, errepresioa eta erabakitze dugu eskubidearen ukazioa barnebiltzen ditu. Hego Euskal Herrian, gatazka eta talka sortzaile den ikurra da bandera espainiarra. Horregatik gure aburuz euskal instituzioetan ikurrinak egon behar du beste euskal ikurrekin batera eta ez inposaturiko atzerriko banderarik. Ikurrinak 7 lurraldeen batasuna, erresistentzia, sentimenduak, euskararen defentsa... ordezkatzeko ditu. Ibartarrok batu egin behar dugu; indarrak biltzeko eta inposaketen aurrean herri gisa erantzuteko».

Geurea Ikurrina!

» Idatzia

Bai Euskal Herriari

Euskal Herriko itsasoan gorri, berde eta txuriz eraturiko olatu handi bat sortzen ari da. Jendearen konpromezuaren arabera txalupa txiki bat gidatu dezakegu eta ezerezean hondoratu. Hala bestela, itsasontzi erraldoi bat landu dezakegu pentsamolde ezberdinetako arraunlari abertzalez bultzatua, norabide bakarra duena: Burujabetzaren Portua.

Nazio bat gara. Euskal Herria 21.000 kilometro karratu eta 3.000.000 euskal herritarrek osatzen dugu. Egun, bi estaturen bai-

tan kokatzen duten euskal nazioa, 4 administrazioetan dute zatitua. Gure izate eta nortasuna ezabatzea helburu izanik, oso modu eta forma ezberdinetan tratatzen gaituzte administrazio bakoitzaren baitan, esaterako:

-Lapurdi, Behe Nafarroa eta Xiberoan; instituzioetatik ikurrina mamiz hustu eta folkloreaken baitan ito nahi duten ikur gisa erabiltzen dute, betiere izaera ofizialeko lekuetatik urrun non bandera frantziarra soilik jartzen duten.

-Nafarroa garaian; ikurrina lege debekaturiko ikurra da. Beraz ez dago euskal ikur hau eraikin publikoetan agertzetik. Gainera, lurralde hori kudeatzen duten administrazioetatik, eraikin publikoetan

espainiar bandera jartzera behartu nahi gaituzte.

-Arabak, Bizkaian eta Gipuzkoan berriz, ikurrina, Espainiar agintearen menpeko ikurra dela agertu nahian, legez behartu gaituzte instituzio publiko guztietan ikurrinaren alboan espainiar bandera jartzera. Horren adibide izan ditugu Lizartza, Bilbo, Donostia, Durango... Ibarrara ere, euren lege inposatzaileen bitartez, bandera espainiarra udaletxeko balkoian jartzeko agindua iritsi daiteke.

Euskal Herria desagerrarazteko edozein arma erabiltzeko prest daude; horien artean ikur arrotzen inposaketa eta gure ikurren desitxuraztea nahiz debekua darabilte.

Eskualdeetako kirolari ugari aurtengo Iruñeko San Fermin jaietan

Herri kirolak » Gure ordezkari gehienak leitzarrak izango dira; Hauen artean, Josetxo Urrutia azpimarratu behar.

A. IMAZ

Iruñeko sanferminetan Herri kirol jaialdiak egongo dira Foruen plazan. Hilaren 8tik 14ra gure eskualdeetako kirolari ugari joango dira bertara. Txapelketa eta erakutaldi desberdinak egunero 12:00etan hasiko dira. Hona hemen gure kirolarien agenda:

Uztailak 9, osteguna

Nafarroako Harri-jasotze Txapelketa jokatu da. Bertan Josetxo Urrutia leitzarra egongo da. Berekin batera Xabier Igoa (Aldatz) eta Unai Bertiz (Sumbila) ariko dira lehian. Egin beharreko lana: Hiru harri desberdinekin 2 minutuko txandak. Harriak: 125 kiloko zilindroa; 112,5eko kubikoa eta 100 kiloko bola.

Nafarroako 3. Mailako Aizkora Txapelketako kanporaketa. Besteak beste Santiago Olano leitzarra eta Asier Pellejero aresoarra egongo dira bertan. Bikanaerdiko ebaki beharko dituzte aizkolariek.

Uztailak 10, ostirala

Nafarroako eta Gipuzkoako aizkolaria gazteek erakustaldia eskainiko dute hilaren 10ean. Nafarroatik bi leitzar egongo dira Foruen plazan: Arkaitz Olano eta Ruben Saralegi. Gipuzkoarrek berriz Jokin Alkizalete asteasuarrari ariko da.

Uztailak 11, larunbata

Nafarroako Txinga Txapelketa jokatu da hilaren 11n. Bertan Miguel Angel Sukunza joango da Leitzatik. 50 kiloko txingekin ahalik eta plaza gehien egin beharko dituzte leitzar berritzeko.

Nafarroako Ingude Altxatze Txapelketan Josetxo Urrutia eta Lazaro Bujan leitzarrak hartuko dute parte. Hauek 18 kiloko ingudearekin ahalik eta altxaldi gehien egin beharko dituzte minutu eta erdian.

Uztailak 12, igandea

Nafarroako Gurdi Altxatze Txapelketan Josetxo Urrutia nekazieria irtingo da.

Ondoren, Inaxio eta Iñaki Perurenak harri-jasotze erakustaldia eskainiko dute.

Perurenatarren erakustaldiaren amaituko dira eskualdeetako kirolarien probak aurtengo Iruñeko sanferminetan.

Leitzako Tolareko meategian auzolana

A. IMAZ

Burdina Taldeak, Leitzako Udalen laguntzaz, Tolareko Meategia berreskuratzeko auzolandegia antolatu du hilaren 4an, etzi.

Tolare baserriaren inguruan aurkitzen diren meategietako bat garbitzeko jada 20 lagunek izena eman dute. Meategia Leitzako ondare historikoa den arren, izena eman dutenen artean oraindik ez da leitzarririk aurkitzen.

Burdina Taldekoek ondorioz

herritarrei dei egin diete, etziko auzolanean parte har dezaten eskatuz. Horretarako ondorengo telefono zenbakira deitu behar da: 699 4876 83.

«Arbasoen ondarea»

Burdina Taldeak antolatu duen ekimenaren helburua, Leitzarango meategiak eta ondare historikoa berreskuratzea da: «Gure konpromisoa, arbasoek utzi zituzten ondarea mantentzea da».



Leitzako Tolare meategietako baten sarrera. A. IMAZ



26°
16°

GOIZA EKAITZA
ARRATS. EKAITZA
BEROENA 27°
HOTZENA 16°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 032. ibarraldea@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernalde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Tolosa.** Urtebete da Pello Odriozola kalean beharko lukeela eta elkarretaratzea egingo dute Plaza Zaharrean 19:30ean.

■ **Tolosa.** Udako liburategia Usabalgo igerilekuan, astelehenetik larunbatera 15:00etatik 19:00etara.

Zinema

■ **Tolosa.** Arnaud Desplechin-en *Un cuento de Navidad* filma Leidor aretoan ostegunean 19:30ean eta larunbatean 22:30ean.

Irteerak

■ **Tolosa.** Hilaren 13tik 19ra La Alberca-ra (Salamanca) irteera antolatatu du Harizpe jubilatutako elkarteak. Izen-ematea, elkartean (pentsio osoa 257 eta 262 euro). Halaber, hilaren 10erako Iruñeko San Fermin jaietara irteera antolatatu du, Blanca de Navarra hotelean bazkalduz. Izen-ematea, elkartean (33 eta 30 euro).

■ **Tolosa.** Hilaren 12rako eskalada irteera antolatatu dute Oargik eta Topaguneak. Informazioa: www.zazpitantriangulon.com.

Ikastaroak

■ **Tolosa.** Tailerrak gazteentzat: hilaren 10ean bitxiak egitea, hilaren 14an henna, hilaren 24an grafiti, hilaren 15ean filma proiektatuko dute eta 17an merendola eta karaokea. Izen-ematea, Topagunean.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Azpiroz, L. Amartz auzoa, 9. 943 675118.
■ **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.

A Agurrak

agurrak urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Emanaldiak jarrai dezan



Jende ugari hurbildu zen Amartzen 'Lunatik' emanaldiaz gozatzera. E. EZBIZA

Tolosa » Amartzoko Antzerki Astearen «ikuskitun nagusia» atzo egin zuten; etzi arte izango dira emanaldi gehiago.

ERREDAKZIOA

Amartzoko Antzerki Artisauak antolatuta, herenegun eman zioten hasiera Amartzoko Antzerki Aste-ari. Aurtengoarekin 11. aldiz antolatatu dute antzerkiaren festa hau; emanaldi gehienak kalean ari dira garatzen, eguzkiak eta beroak ere present egon nahi izan dituztenak.

Atzokoan «ikuskitun nagusia» txanda izan zen, antolatzaileek eurek esan bezala. Hala, Nanny Cogorno argentinaren eskutik *Lunatik* antzezlanak ikusi ahal izan zen auzoan. Jende ugari hurbildu zen eta jendea «gustura» azaldu zen.

Gaurkoan, berriz, *Bolaluma* lana ikusi ahalgo da 17:30etik aurrera, Kixka taldearen eskutik.

Bihar, helduentzat saioak eta afaria txosnagunean

Haurrak izan dira aurtengo edizioaren protagonista nagusiak. Hala ere, helduentzako ere saioak

prestatu dituzte; hain zuzen, bihar izango dira, 23:00etatik aurrera: *Bazen norbait* lana izango da Kontukantoi taldearen eskutik. Ondoren, 23:30ean, *Comico de los caminos* antzezlanak izango da, Pablo del Mundilloren eskutik.

Aurretik, dena den, afaria antolatatu dute. Hau txosnetan izango da, eta bertara joan nahi duenak

Ogi Berri okindegian erosi beharko ditu txartelak, 19 euroren truke.

Gainera, etzi, larunbatearekin, Sebastopoleko titiriteroen *Pailazo titiriteroak* izango da ikusgai, 17:30ean. Bestalde, asteazken zehar, makilaje eta globofexia tailerrak ere ari dira garatzen eta datozten egunotan ere izango dira auke-ran.

Aurtengoan ere, Tourreko tropela Kanariar irletara!

Abian da tropela.net: Tourra, sarean, euskaraz, eta sariekin...

Izen ematea doan.

Logoak: hitza, tropela.net

1. Euskal Herriko zikloturista itzulia

Prueba ciclistarista del País Vasco
Randonnée cyclotouriste du Pays Basque
MAULE (Zuberoa) Euskal Herria

IRATIKO TOURRA - martxo zikloturista -
2009
Urtarrilak
Otsailak
Martxoak

IZEN-EMATEA/INSCRIPCIÓN/ PAR CHÈQUE
www.iratikotourra.com
www.herrikrossa.com
www.sam.mauleon.com

Sponsorrak:
hitza, esait, SSK